



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 29a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urgentziaz eta aldizkakotasunez dei ditzan hezkuntzako mahai sektoriala eta irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen-batzordea. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da albait lasterren has ditzan Indultu-grazia baliatzeko arauari buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzeko lege proiektu bat aurkezteko egin beharreko lanak. Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ostalaritzaren, gaueko aisialdiaren eta diskoteken sektorerako berariazko talka-plan bat taxutu dezan. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, zeinetan parte hartuko baitute Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Parlamentua osatzen duten talde politikoek, udalek eta Bizigarritasunari buruzko Dekretua onesteko prozesuak ukitutako eragile eta kolektiboek. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da kanabisaren nahiz haren eratorrien kontsumoa eta kontsumorako edukitza despenaliza dezan. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2020-2021 ikasturterako NUPEko graduko ikasketetako ikasgaietako matrikula guztiak tasa bakar batean bateratu ditzan, halako moduan non inolaz ere ez baitu gaindituko egungo 1. matrikularen kostua. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Jarraipen Mahai bat sortzen da, kirola edozein diziplinatan normaltasunez egin ahal izan arteko berariazko jarraibideak ezartzeko. Mozioa erretiratzea (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernuak premiatzen da hartu beharreko lege ekimenak eta parlamentarioak har ditzan, halako moduan non toki entitateek ez baitute aurrekontu egonkortasuna bete beharko, baldin eta desoreka hori COVID-19aren aurkako eta suspertze ekonomikoaren aldeko borrokaekin zuzenean lotutako zioei zor bazaie. Mozioa erretiratzea (10. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2020ko eztabaida dela-eta. (11. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz eta aldizkakotasunez dei ditzan hezkuntzako mahai sektoriala eta irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen-batzordea.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziaz eta aldizkakotasunez dei ditzan hezkuntzako mahai sektoriala eta irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen-batzordea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ikasturte berria inoiz ez bezalako baldintzetan garatzen ari da hasiera-hasieratik. Koronabirusak bizirik jarraitzen du, eta, hortaz, kutsatzeko arriskuak dirau eta asko dira birusaren jokabideari eta ondorioei buruzko ziurgabetasunak, nahiz eta orain dela zenbait hilabete baino gutxiago izan.

Argi dago ikastetxeak arriskuko tokiak direla, ikasleek, irakasleek eta irakasle ez diren langileek

eskola-inguruetik kanpo gizarte- nahiz familia-bizitza daukaten neurrian. Halere, segurtasun-maila handia manten daiteke eta mantendu behar da eskola-ingurunean, baina horretarako Osasun Departamentuak herritar guztientzako agindutako segurtasun eta higiene neurri guztiak hartu beharra dago, ikasle, irakasle, irakasle ez diren langile, familia, enpresa eta hezkuntza-administrazioari eragiten baitiete, eta azken horrek, zehazki, zaindu egin behar du neurri horiek betetzen direla, babes eta jarduketa protokoloak definitu behar ditu eta behar diren hezkuntza-baliabideak paratu behar ditu.

Kutsatzeko arriskua minimizatuko bada, Gobernuko zenbait departamentu inplikatu eta koordinatu behar dira; zehazki, Osasun, Hezkuntza eta Lurralde Kohesiorako departamentuak.

Jakin badakigu ikastetxeetako zuzendaritzak eta sindikatuak kezkatuta eta lanpetuta daudela ikastetxeetan sortzen diren egoerei aurre egiten, zeinak, konfinamendu kasuan, langileen familien eragina baitute.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Urgentziaz eta aldizkakotasunez dei ditzan hezkuntzako mahai sektoriala eta irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen-batzordea, COVID-19ari aurre egiteko neurri berrien eta hobetze-proposamenen jarraipena, ebaluazioa eta analisisa egiteko.

2. Irakasleen, irakasle ez diren langileen eta ikasleen segurtasunari eta kutsatzearen prebentzioari buruzko protokolo bat taxutu dezan, Segurtasun eta Osasun Batzordearekin adostua.

3. Birusa dela-eta detektatutako egoeretan ikastetxeei berehala aholku emateko prozedura taxutu dezan.

4. Haur Hezkuntzako irakasleei auto-babeseko maskarak eman diezazkien.

5. Ikastetxeei aholku eman diezaien espazioak eta denborak beren ezaugarri partikularren arabera antolatzeko.

6. Neurriak ezar ditzan, ikastetxeetako irakasleen eta irakasle ez diren langileen laneko konziliazioari begira.

7. Enpresekiko bitartekaritza egin dezan, enpresek lanaldiak malgutzeko prozedurak eta telelana ezar ditzaten, langileak seme-alabez arduratu ahal izan daitezen konfinamendu kasuan.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da albait lasterren has ditzan Indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzeko lege proiektu bat aurkezteko egin beharreko lanak.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita albait lasterren has ditzan Indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzeko lege proiektu bat aurkezteko egin beharreko lanak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean eztabaidatzeko:

Indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legeak, zeina 1870eko ekainaren 18koa baita, 150 urte baino gehiago ditu, eta jatorrizko testuak garai hartako gizartearen beharrezan berekiei erantzutea zuen xede.

Indarrean sartu zenez geroztik, lege horrek ez du ia aldaketarik izan orain arte, urtarrilaren 14ko 1/1988 Legean eta martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren azken xedapenetako lehendabizikoan jasotakoez aparte.

Horregatik beharbada, azken urteotan zenbait legegintza-ekimen bultzatu dituzte alderdi politikoek, araua gure egunotarako errealitatera egokitu nahian, eragingarriagoa izateaz gain iritzi publikotik babesteko asmoz, zeren eta figura horrek arbuioaren eta erabateko premiaren arteko kontraesana sortzen baitu zenbaitetan.

Agertoki horretan dauka inoiz ez bezala Espainiako Gobernuak, hain zuzen ere, figura hori alderdi politikoen arteko gatazkatik eta herriaren judiziotik babesteko betebeharra.

Indultuaren figura salbuespenezko baliabide bat da eta izan behar du, epaitegiek eta auzitegiek legeari jarraikiz ezarritako zigor-erantzukizuna zeharo nahiz partzialki betearazteko, eta demokraziaren ikuspuntutik soilik da onargarria justizia, ekitatea edo erabilgarritasuna direla eta ematen denean.

Eta botere publikoek esparru horretan jokabide arbitrario bat izatea ekiditeko modurik onena da exigitzea indultu ororekin zehaztea, erabatekoa nahi partziala izan, Gobernuak zer arrazoi izan duen indultua emateko. Hau da, exigitzea indultua emateko errege-dekretuak ziodunak izan daitezzen, 1988ko aldaketan kendu zen baldintza hori berreskuratuz.

Bestalde, salbuespenezko baliabide hori delitu-tipo jakin batzuetan aplikatzea ezin da justifikatuta egon. Alegia, sarritan esaten dugun horren manifestazioa eta adierazpidea izan behar du: zero tolerantzia gai jakin batzuetan. Jokabide horiek sortzen duten erabateko arbuioaren manifestazio bat da kondenatu horiek indultua jaso ahal izatea ekiditea.

Azkenik, uste dugu erabateko indultua emateko beharrezkoa dela epaia eman duen magistratua edo auzitegia ados egotea. Ez auzibidera itzultzeko modu gisa interpretatuta, baizik eta erregearen izenean emandako epaiak erregeak baliatutako indultuarekin alderatzeko modu gisa.

Halere, planteamendu horren aitzinean, herritar gehienok sekula ikusi gabeko egoera bat bizi dugu gaur egun; izan ere, gizartean berealdiko alarma sortu du Gobernuak gogoan izateak indultua ematea sedizioagatik eta funts publikoak bidegabeki erabiltzeagatik jada kondenatuei, gobernu zentrala osatzen duten alderdien eta Estatuko Aurrekontu Orokorrak izapidetzeko bidelagun nahi dituzten alderdien arteko trukada gisa.

Figura juridiko hori xede zeharo alderdikarietarako erabiltzeak indultu-graziaren izaera bera gai-

nazpikatuko luke, demokraziaren oinarritzko zutabeen aurkako eraso bat ekarriko luke –hala nola diren botereen arteko banaketa eta legearen aitzineko berdintasuna–, eta espainiar gizartearen bizikidetasun-arauak hautsiko lituzke.

Erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du al bait lasterren has ditzan 1870eko ekainaren 18ko Legea, Indultu-grazia baliatzeko arauari buruzkoa, aldatzeko lege proiektu bat aurkezteko egin beharreko lanak, figura juridiko hori ez dadin erabil xede politiko alderdikarietarako truke-txanpon gisa. Proiektu horrek, besteak beste, honako hauek jaso behar ditu:

a) Zenbait delituren kasuan ezin izanen dela erabili figura hori, ez osoki ez partzialki; gutxienez ere honako hauetan: ustelkeria; genero-indarkeriarekin lotutakoak; terrorismoa; sexu-trafikoa; pederastia; adingabeen aurkako indarkeria; matxinada, eta sedizioa.

b) Gobernuaren ustez indultua justifikatzen duen txosten ziodun bat egin beharra, eta Estatu-ko Aldizkari Ofizialean hala jaso behar izatea.

c) Indultu osoa eman ahal izateko epaia eman zuen auzitegiaren edo epailearen aldeko iritzia exigitzea, adierazita hala gomendatzen duten arrazoiak daudela, justizia, ekitatea, erabilgarritasun publikoa edo kondenatua behar bezala gizarteratu izana direla-eta.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ostalaritzaren, gaueko aisialdiaren eta diskoteken sektorerako berariazko talka-plan bat taxutu dezan.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ostalaritzaren, gaueko aisialdiaren eta diskoteken sektorerako berariazko talka-plan bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresari-leko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresari-leko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ostalaritzaren, gaueko aisialdiaren eta diskoteken sektorerako berariazko talka-plan bat taxutu dezan.

Denok dakigu Nafarroako Foru Komunitateko sektore askok egoera larria bizi dutela COVID-19aren nahiz pandemia hori kontrolatzeko ezarri diren neurrien ondorioz. Sektore horien artean daude, bereziki kaltetuta, gaueko aisialdiaren sektoreko lokalak eta sektore horrekin lotutako gainontzeko enpresak, zeinen jardura ekonomikoak geldiarazirik jarraitzen baitu oraindik.

Krisi sanitarioaren eraginez, gaueko aisialdiko enpresen % 60 inguruk erreka jo dute Espainia osoan. Aisialdi-mota hori ekonomia nazionalaren parte oso garrantzitsua da; izan ere, BPGaren % 1,8 egiten du, eta 300.000 familia inguru bizi dira sektore horretatik, estrategikoa baita herrialdeko turismoarentzat.

Gaur egun, gauzak nola doazen ikusita, gaueko aisialdiko enpresak direla-eta hartutako neurriak oso motz geratzen dira egoera arintzeko, eta Gobernu zentralak oraingoz ez du inolako babes-neuririk aurreikusi, sektoreko enpresaburuei krisitik ateratzen lagunduko dienik.

Nafarroak, zeinak merkataritzako eta ostalaritzako sarearekiko lotura berezia baitauka, bul-tzada eta suspertze neurriak eskatzen ditu, azken hilabeteotan pairatutako produkzio-ezaren ondoren, horrek lokal ugari ixtea eragin baitu eta mugako egoerara eraman baititu beste asko.

Horregatik uste dugu konponbide berriak aplikatu beharra dagoela, lokal-mota horiek salbuespenez hartu ahal izan ditzaten bide alternatibo batzuk beren negozioa suspertzeko; esaterako, taberna edota kafetegi lizentziak ematea. Aldi baterako neurri horri esker, gaueko aisialdiko lokalek beren lokalak ireki ahal izanen lituzkete, tabernentzako eta jatetxeentzako araudia betez eta, gutxienez ere, neurri batean arintzeko erabat ixteak ekarriko lituzkeen galerak.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiazten du ostalaritzaren eta gaueko aisialdiaren sektorea erreskatatzeko plan integral bat taxutu dezan, zeinak honako neurri hauek jasoko baititu besteak beste: ABEE-aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak luzatzea aldeztuta, harik eta COVID-19aren krisiaren aitzineko egoerara itzultzea lortzen duten arte; sektorearentzako abalen linea berariazko bat, gabezialdia bi urtera luzatuta; zuzeneko laguntzak, Administrazioak behartuta erabat itxi behar izan den kasuetan; eta haiengan eragin zuzen handia duten zergak geroratzea eta kenkariak ekarriko dituzten neurri fiskalak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bere esku dauzkan legegintza-neurri bereziak baliatuta, behar den lege-esparrua sor dezan, toki entitateek gaueko aisialdiko lokalei lizentziak, bereziak eta aldi baterakoak, eman diezazkieten taberna edota kafetegi gisa jarduteko. Horren xedea da enpresaburu horiek jardueraren bat egin ahal izatea behinik behin aparteko egoera honetan, beharrezkoak

diren neurri sanitario guztiekin, modu azkarrean ematen ahal den lizentzia bikoitz baten babespean, administrazio-prozesuak minimizatuz eta, hein batean bada ere, sektoreko jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzen lagunduz.

3. Halaber, toki entitateak premiatzen dira, arestiko puntuan aipatutako lizentziak baimen-

tzearen ondorioz, espazio publikoa erabiltzeko kasuko baimenak eman ditzaten, interesatuta dauden establezimenduek terrazak paratu ahal izan ditzaten, Gobernuak ezarritako gehieneko kopuruak direla-eta.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, zeinetan parte hartuko baitute Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Parlamentua osatzen duten talde politikoek, udalek eta Bizigarritasunari buruzko Dekretua onesteko prozesuak ukitutako eragile eta kolektiboek.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, zeinetan parte hartuko baitute Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Parlamentua osatzen duten talde politikoek, udalek eta Bizigarritasunari buruzko Dekretua onesteko prozesuak ukitutako eragile eta kolektiboek.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Etxebizitza duin baterako eskubide konstituzionalak nahitaez dakar etxebizitza zer den zehaztea.

Hori dela-eta, guztiz garrantzitsua da zehaztea zer baldintza bete behar dituzten lehendik dauden eraikuntzek nahiz eraikuntza berriek, etxebizitzat har daitezen.

Eskakizun zurrun batek egungo etxebizitza-parkearen parte handi bat utz lezake kanpo, eta ondorio negatiboak izan litzake bertako egoiliarren eguneroko bizitzan, eta denboraren iraganari zor zaizkion eraldatze sozialeko edo berrikuntzako prozesuak eragotzi.

Aitzitik, gutxieneko baldintza batzuk ezarri ezean edo gehiegizko laxotasuna egonez gero, gure ingurune sozialean etxebizitza orok bete beharreko duintasun eta kalitate eskakizun oinarritzkoenen aurkako egoitza-tipologia berriak sortuko lirake.

Gainera, araudia esparru eta erabilera ezberdinetara egokitu behar da. Ez dira gauza bera landa eremuko etxebizitza bat edo egoitza-dentsitate handiagoko bat, edo etxebizitza berri bat edo behiala eraikitako bat.

Jakina denez, Nafarroako Gobernua dekretu berri bat izapidetzen ari da, bizigarritasun-baldintzak zehaztuko dituena.

Ukitutakoek, eragile sozialek eta udalek alegazioak aurkezteko epea bukatu da, eta Parlamentu honek ere parte hartu beharko luke eztabaida-pro-

zesu horretan, arau-testua onetsi aitzin, ondorioak Nafarroako gizarte osora hedatuko baitira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, zeinetan parte hartuko baitute Etxebizitza Departamentuak, Parlamentua osatzen duten talde

politikoek, udalek eta Bizigarritasunari buruzko Dekretua onesteko prozesuak ukitutako eragile eta kolektiboek.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da kanabisaren nahiz haren eratorrien kontsumoa eta kontsumorako edukitza despenaliza dezan.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita kanabisaren nahiz haren eratorrien kontsumoa eta kontsumorako edukitza despenaliza dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gure erkidegoan garatutako lehendabiziko legegintzako herri-ekimenari esker, Nafarroako Parlamentuak Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Legea onetsi zuen 2014ko azaroaren 27an. Arau hori, gero, Konstituzio Auzitegiak ezeztatu zuen 2017ko abenduan, Estatuaren eskumenak inbaditzen zituela-eta.

Lege hori aitzindaria izan zen bere esparruan, lehendabiziko aldiz jasotzen baitzuen, modu serio eta zorrotzean jaso ere, kanabisaren kontsumoarekin lotutako hainbat auzi, eta eredugarria eta inspirazio-iturri izan zen beste erkidego batzuetan antzeko ekimenak abiaraz zitezen –adibidez, Katalunian– eta, are, kanabisa legeztatu duten beste herrialde batzuetan legea kalka zezaten –adibidez, Urugain–.

Nafarroan normalizatu egin dira kanabisaren presentzia eta kontsumoa, alkoholarena edo tabakoarena baino gutxiago bada ere: 15etik 64 urtera bitarteko helduen ia % 40k eta 14tik 18ra urtera bitarteko biztanleen ia % 39k probatu dute, “Edades 2017” eta “Estudes 2016” inkesten arabera. Espainiako batez bestekoa, berriz, % 31koa da. Adin-tarte horretan, joera beheranzkoa da 2006tik hona, unean uneko bi gorakada izan badira ere: 2008tik 2021ra bitarte bata eta 2014tik 2016ra bitarte bestea. Azken 30 egunotan kanabisa kontsumitu duten herritarren portzentajea % 19koa da 18 urtetik 29 urtera bitarte, eta % 22koa, berriz, 14 urtetik 18 urtea bitarte. Espainiako batez bestekoa % 18koa da.

Halaber, Nafarroako droga-mendekotasunari buruzko azken txosteneko ondorio deigarri bat zen Nafarroan ikasten duten adingabeen erdiak baino gehiagok uste dutela kanabisa legeztatzea ona izanen litzatekeela droga-mendekotasunaren aurka borrokatzeko.

Horrek guztiak agerian uzten du, batetik, kanabisaren eta haren eratorrien legalizazioa gaurkotasuneko gaia dela bete-betean, eta, bestetik, beharrezkoa dela, XXI. mendean aspaldi sartuta gaudelarik, drogak debekatzeko politika zaharrari

amaiera ematea eta politika pedagogiko eta hezitzaileen aldeko apustu irmoa egitea.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du egin beharreko lege-aldaketak egin ditzan hala Zigor Kodean nola Herritarren Segurtasunari buruzko Legean, erabat despenalizatzeko kanabisaren eratorrien kontsumoa nahiz kontsumorako edukitza.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du arau-esparru argi bat gara dezan, kanabis-elkarte eta -klubek jarduera aitortu, bermatu eta antolatuko duena, bai eta haren erabilera terapeutikoa ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du foru erkidegoan kanabisaren eratorrien kontsumoa nahiz kontsumorako edukitza legez arautu ditzan, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Legetik abiatuta, zeina Parlamentu honek 2014ko azaroaren 27an onetsi baitzuen.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen ditu informazio-kanpaina bana egin dezaten kanabisaren kontsumotik heldu diren arriskuei buruz eta, zehazki, adingabeen artean kanabisaren kontsumoa prebenitzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2020-2021 ikasturterako NUPeko graduko ikasketetako ikasgaietako matrikula guztiak tasa bakar batean bateratu ditzan, halako moduan non inolaz ere ez baitu gaituratu egungo 1. matrikularen kostua.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2020-2021 ikasturterako NUPeko graduko ikasketetako ikasgai-

tako matrikula guztiak tasa bakar batean bateratu ditzan, halako moduan non inolaz ere ez baitu gaituratu egungo 1. matrikularen kostua, eta 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Jarraipen Mahai bat sortzen da, kirola edozein diziplinatan normaltasunez egin ahal izan arteko berariazko jarraibideak ezartzeko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Jarraipen Mahai bat sortzen zen, kirola edozein diziplinatan normaltasunez egin ahal izan arteko bera-

riazko jarraibideak ezartzeko, eta 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernuak premiatzen da hartu beharreko lege ekimenak eta parlamentarioak har ditzan, halako moduan non toki entitateek ez baitute aurrekontu egonkortasuna bete beharko, baldin eta desoreka hori COVID-19aren aurkako eta suspertze ekonomikoaren aldeko borrokarekin zuzenean lotutako zioei zor bazaie.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nazioko Gobernuak premiatzen da hartu beharreko lege ekimenak eta parlamentarioak har ditzan, halako moduan non toki entitateek ez baitute aurrekontu egonkortasuna bete beharko, baldin eta desoreka

hori COVID-19aren aurkako eta suspertze ekonomikoaren aldeko borrokarekin zuzenean lotutako zioei zor bazaie, eta 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2020ko eztabaida dela-eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, zeinetan eskatzen baita Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egitea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorritik Osoko Bilkurak eztabaida dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2020ko eztabaida dela-eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduren 201. artikulua ezartzen duenez, legegintzartearen lehen bilkuraldiaren hasieran Legebiltzarreko osoko bilkura berezia egin behar da foru komunitatearen egoerari buruzko politika orokorra eztabaidatzeko, salbu eta Gobernuak lehendakariaren inbestidura-eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean.

Egungo gobernuak urtebete baino gehiago darama lanean eta, martxotik aitzina, COVID-19aren pandemiaren inguruan egin behar izan du batez ere bere kudeaketa-jarduna. Osasun-krisialdi bat da hau, baina baita krisialdi sozial eta ekonomikoa ere, eta eragin bortitza izaten ari da pertsonengan. Gobernuaren lanari dagokionez, gastua handitzea eta diru-sarrerak murriztea ekarri du; baita aurrekontuak birpentsatu behar izatea

ere, zerbitzu publikoei, gizarte-premiei eta enpresen beharrei erantzun ahal izateko, hori izan baita eta hori baita gobernu osatzen duten guztien nahia. Jarduterakoan irizpidea da gastuak ez murriztea, eta behar beste baliabide erabiltzea jardute-printzipio horiek babesteko. Estatuarekiko zorpetze-zifra itxi berri dugu eta ehuneko 2,6an dago, baina kopuru hori, guztiak bezala, eguneratu egingen da pandemiak eta haren eraginak aurrera egin ahala. Aurrekontuari dagokionez, gure jarrera da zorpetzera jotzea eta partidak birbidertzea, gizarte-gastuari eusteko eta modalitate guztietako laguntzak ematen jarraitu ahal izateko sektore kaltetuenei eta ahulenei.

Nafarroako Gobernuak etengabe argitaratu ditu datuak, baina gogora ekarri behar da Ekonomia eta Ogasun Departamentuak 2020rako eta 2021erako egindako proiektzio makroekonomikoa. Aurreikuspenen arabera, aurten BPGa % 9 eta %10,2 artean jaitsiko da, eta datorren urtean igoea bat izanen da (% 6,5 eta % 7,2 artean).

Urte bukaerarako aurreikusten dugu diru-sarrerak 538 milioi inguru jaitsiko direla; beraz, aurreikusitakoaren ehuneko 13,3 gutxiago.

Abuztuan erregistratutako langabeziak ehuneko 2,7ko jaitsiera erakutsi zuen eta, hilabete horretan, Gizarte Segurantzako afiliazioa igo egin zen: 2.321 pertsona gehiago. Gainera, Nafarroa da ABEEE (aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente) gehien altxatu dituen erkidegoa, eta jardueraren bilakaeraz enpresekin egiten dugun monitorizazioak erakusten digu uztailan baino susperraldi handixeagoa egon dela industrian.

Foru Komunitateak konpromiso irmoa du gizarte-inbertsioa egiteko. 2020ko aurrekontuetan, gizarte-gastuak guztiaren ehuneko 56,54 hartzen zuen. Gu gara, gainera, ikasle bakoitzeko irakasle-ratiorik handiena duen erkidegoa, ikasturte hasiera honetan.

Adierazle horiek ez gaituzte autokonplazentziara eraman behar; aitzitik, akuilua izan behar dute, hobetzeko eta hasitako bidean aurrera egiteko, badakigulako osasun-, gizarte- eta ekonomia-egoera zaila dela oraindik eta erronkak hortxe dirauela.

Nafarroa, beraz, krisiaren eraginpean dago, baina adierazle batzuek uzten digute baikortasun zuhur batekin begiratzen epe ertaineko etorkizunari. Jakina, osasunaren arloko bilakaerak markatuko du, oraindik ere hilabete askotan, gainerako jardunaren bidea. Baina, ziurtasun gutxi badaude ere, epe ertaineko egoerak aukera ematen digu krisialdi honen irtenbidea ikusteko. Irtenbide hori, hein handi batean, lotuta dago COVID-19ari aurre egiteko txerto bat eta tratamendu espezifiko bat izatearekin.

Testuinguru honetan, Gobernuak gogor aritu da Parlamentuak berretsi duen araudi bat kudeatu eta prestatzen. Horri esker, erakundeek gaineko oso mezu positiboa jaso dute Nafarroako herritarrek.

Legegintzaldiaren hasieran elkarrizketaren alde geunden erabat, eta pandemian zehar ikusi dugu elkarrizketa bide baliagarri eta eraikitzailea dela. Gobernuak honen hasieran jada elkarrizketaren bidetik ibiltzen hasi ginen, eta agintaldi osoan barrena eutsiko diogu molde horri.

Orain erronka itzel bat dugu aitzinean: berreraikuntza sozial eta ekonomikoa. Horretarako, Nafarroa Suspertu Plana onetsi dugu, gizarteak eta Parlamentuak parte hartu eta ekarpenak egin ondoren. Plan horrek legegintzaldi hau gainditzen du, eta marrazten duen eredu sozial eta ekonomikoa finkaturik zegoen jada legegintzaldiko akordioan, baina, kinka honetan, are eta premiazko eta garrantzitsuagoa da, baldin eta hori posible bada. Berrikuntza, digitalizazioa, itun berdea, inklusioa, aukera-berdintasuna. Gainera, berretsi egiten du 2030eko Agendaren alde egin dugu apustua.

Ardatz horiek, halaber, Next Generation europarraren ildo berekoak dira. Funts horiek, hain zuzen ere, pentsatuta daude oinarriko hiru ardatz hauek dituzten proiektuetarako: digitalizazioa, jasangarritasuna eta inklusioa. Nafarroa oso ongi dago kokatuta, arlo horiek lantzen ari delako, hala esparru publikoan nola pribatuan. Eta Nafarroa Suspertu Planaren barruan ere, laguntza horiek jasotzeko moduko proiektu ugari dago. Horrenbestez, proposamen indartsua dugu berreraikuntza hori egiteko, eta gizarte osoari eskatzen diogu lan horretan parte hartu dezala. Gizarteak, disei-

nuan parte hartu duen bezala, inplementazioan ere aritu beharra du, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko ezinbesteko lankidetzaren barruan.

Egoera konplexu hori kudeatu beharra izan dugun arren, ez ditugu bazterrean utzi beste egiteko batzuk, horiek ere beharrezkoak izaki. Hori dela eta, aurrez aurreko klaseekiko ikasturte bat proposatu dugu, jakinik Hezkuntzak ezinbesteko lan bat egiten duela eta ikasgeletan balio egokiak barneratzen direla. Hainbat eraldaketa bizkortu egin ditugu, hala nola, egoitzen eredua, administrazioaren telelana, kontziliazioari indarrez heltzeko hausnarketa sakona. Eta, aldi berean, aurrera egin dugu Bizikidetzaren Planean, Berrikuntzaren Poloan edo prozesuen digitalizazioan. Horra adibide gutxi batzuk, hainbat egiteko eta konpromisotan egin dugun aurrerapenaren erakusgarri; izan ere, ohiz kanpokoaz arduratu beharra dago, baina ohikoa bertan behera utzi gabe.

Gainera, Nafarroako 2021eko aurrekontuen proiektua prestatu beharrean gaude. Bertan sartu beharko dira jada Nafarroa Suspertu Planeko neurri horietako batzuk. Aurrekontu horiek, azken finean, balioko dute zerbitzu publikoak indartzeko eta euskarri ekonomikoa emateko proposatzen dugun eredu berritzaile horri, eragin sozial sakona duen eredu horri.

Era berean, elkarlaneko harreman egokiak ditugu Espainiako Gobernuarekin eta autonomia-erkidegoekin, bereziki hurbilen ditugunekin, eta lanean dihardugu Europako eskualdeen esparruan, solaskide irekia izanik Europar Batasunarekiko elkarrizketan.

Horrez gain, hiruhileko hau garrantzitsua izanen da egiteko dauden transferentzia batzuetarako (bereziki trafikoarena, presondegiatiko osasunarena eta bizitzeko gutxieneko errentaren kudeaketarena), eta badago beste egiteko handi bat ere, alegia, Hitzarmen Ekonomikoaren hurrengo oinarri-urtea negoziatzea.

Idazki honen bidez formalki eskatzen dut, Nafarroako Gobernuaren izenean, Parlamentura joan ahal izatea, aurreko egindako kudeaketaren berri ematera eta hurrengo ekitaldiaren oinarriak zein lehentasunak azaltzera, beti bezala entzuteko, solas egiteko eta akordioak adosteko borondatearekin Nafarroaren eta nafarren mesedetan.

Iruñean, 2020ko irailaren 23an

Nafarroako Lehendakaria: María Chivite Navascués